



ESPERIMENTUA: IZOTZAREN FORMAK BA OTE DU ERAGINIK URTZEKO ABIADURAN?

Abiadura berean urtuko ote dira izotzezko pieza luze eta estu bat eta kubo-formako izotz-koskor bat? Edo izotzak denbora bera behar ote du beti izotzeko, edozein forma izanik ere?

SAIATU ASMATZEN: Zure ustez, izotzaren formak izango al du eraginik urtzeke abiaduran?

ESPERIMENTUA EGITEAN KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

Gogoratu aldatu behar duzun gauza bakarria izotzaren forma dela. Gainerako gauza guztiak berdin mantendu behar dira!

- Gogoratu beti ur-kantitate bera erabiltzea.
- Nola egingo dituzu forma desberdineko izotz-zatiak? (Gakoak: Aluminio-paperarekin ondo egin daitezke forma desberdinak.)
- Zenbat denboran egingo duzu esperimuntua?
- Zenbat formatako izotzak erabiliko dituzu?

DATUAK

- Zer neurtuko duzu?

ZER IKASI DUZU ESPERIMENTU HONETATIK? ZER GERTATU DA? ZERGATIK USTE DUZU GERTATU DELA?

Bizitza errealean...

HURRENGO BATEAN, ZERBAITEK URTZEN DENBORA GEHIAGO IGARO DEZAN NAHI BADUZU, APLIKA AL DEZAKEZU HEMEN IKASITAKOAK?

ANAK (5 URTE), EDALONTZI-ERDI UR URDIN HARTU, ETA FORMA DESBERDINEKO LAU PLASTIKOZKO ONTZITAN IZOZTU ZUEN. EMAITZA HARRIGARRIA IZAN ZUEN: SAKONERA TXIKIENEO ONTZIAN ZEGOEN IZOTZA (MEHEENA) URTU ZEN AZKARREN.



MAILA AURRERATUA: Zer beste galdera dituzu formei eta urtzeko abiadurari buruz? Diseinatu esperimentu bat galdera horri erantzuteko.